


# ATAUNGO ERAGILE SOZIOEKONOMIKOEN MAPA



**Ataungo udala**

## AURKIBIDEA

<b>1. ATAUNGO TESTUINGURUAREN GERTURATZEA .....</b>	<b>3</b>
1.1. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA EAE-N (2001-2019) .....	3
1.2. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA GIPUZKOAN (2001-2019) .....	4
1.3. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA GOIERRIN (2001-2019) .....	6
1.4. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA ATAUNEN (2001-2019) .....	8
<b>2. ATAUNGO JARDUERA SOZIOEKONOMIKOA ETA AKTIBITATEAK .....</b>	<b>10</b>
2.1. JARDUERA EKONOMIKOEN SORRERA URTEA .....	10
2.2. JARDUERA EKONOMIKOEN FORMA JURIDIKOA .....	11
2.3. JARDUERA EKONOMIKOEN AKTIBITATE KONKRETUA .....	12
2.4. JARDUERA EKONOMIKOEN KOKAPENA .....	13

## 1. ATAUNGO TESTUINGURUAREN GERTURATZEA

### 1.1. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA EAE-N (2001-2019)

Ondorengo taulako datuek adierazten dutenez, EAEn lehenengo sektorea izan da 1996tik 2019ra indar txikiena izan duen sektore ekonomikoa; gainera beheranzko joera izan du urte hauetan. Hala, 1996an EAEko jarduera sozioekonomiko guztiaren %1,6 hartzen zuen nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak. 2010ean %0,7ra jaitsi bazen ere, azken urteetan pixka bat igo da eta 2019an %0,9koa izan zen bere pisua. Hala ere, ikusten denez, 1996tik 2019ra lehenengo sektoreak behera egin du.


Bestalde, zerbitzuek EAEko jarduera soziokoenomikoaren zatirik handiena hartzen dute 1996tik gaur egunera arte, 23 urte horietan 9 puntu hazi delarik. Izan ere, 1996an EAEko jarduera sozioekonomikoaren %60,4 hartzen zuten zerbitzuek, 2010ean %65,8 eta 2019an %69,4. Beraz, zerbitzuen bilakaera goranzkoa izan da, lehenengo sektorearena ez bezala. Zerbitzuetatik %21 komertzioak, ostalaritza eta garraioak dira, %16,8 administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak eta gainontzeko %31,5 bestelako zerbitzuak dira.

Industria eta energiak 1996an EAEko jarduera sozioekonomikoaren ia heren bat hartzen bazuten ere (%31,2) gaur egun %23,9a hartzen du, 7 puntu baino gehiagoko jaitsiera izan duelarik. Azkenik, eraikuntzari dagokionez, 2005 eta 2008 artean hazi egin zen %9,7ko pisua hartuz. Baina etxebizitzaren krisiaren ondoren 2019an %5,9a izatera pasa zen, azken urteetako pisurik txikiena.

**1. Taula. Sektoreen bilakaera EAEn (1996-2019)**

	1996	2000	2005	2010	2015	2019
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,6	1,4	0,9	0,7	0,8	0,9
Industria eta energia	31,2	32,1	30,2	25,1	24,3	23,9
Eraikuntza	6,8	7,0	9,3	8,4	6,0	5,9
Zerbitzuak:	60,4	59,6	59,6	65,8	69,0	69,4
-Komertzioak, ostalaritza eta garraioak	-	-	-	19,3	20,5	21,0
-Administrazio publikoa, osasungintza, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak	-	-	-	16,7	17,0	16,8
-Bestelako zerbitzuak	-	-	-	29,9	31,5	31,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

**Sektoreen bilakaera EAEn (1996-2019)**




EAEen lanaren bidez lortutako errenta 5.097 euro igo da 1996tik 2019ra, 2001ean 8.466 eurokoa izatetik 2019an 13.563 eurokoa izatera (%60,2ko igoera). Generoaren arabera errentaren banaketari erreparatu, 2001 urtean gizonek (12.243) emakumeek (4.917) baino 7.326 euro gehiago kobratzen zuten urtean. 2019an generoen arteko arrakala txikitu zen arren nabarmena izaten jarraitzen zuen; gizonek (16.876) emakumeek (10.510) baino 6.366 euro gehiago kobratzen dutelarik.

**2. Taula. Lanaren bidezko errentaren bilakaera EAEen (2001-2019)**

	2001	2006	2011	2016	2019
Gizonezkoak	12.243	15.202	15.994	15.394	16.876
Emakumezkoak	4.917	7.058	8.959	9.207	10.510
Guztira	8.466	11.002	12.358	12.182	13.563

**Lanaren bidezko errentaren bilakaera EAEen (2001-2019)**



## 1.2. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA GIPUZKOAN (2001-2019)


Gipuzkoako datuak ikusirik lehenengo sektoreak EAEko datu oso antzekoak ditu, 1996an Gipuzkoako jardura sozioekonomikoaren %1,3 hartzen zuten bitartean, 2019an %0,7 hartzen zuten. Gauza bera gertatzen da zerbitzuekin, Gipuzkoako datuak EAEkoekin konparatuta nahiko antzekoak diren arren, Gipuzkoan zertxobait pisu txikiagoa dute zerbitzuek. Hala, 1996an zerbitzuek bertako jardura sozioekonomikoaren %58,7 hartzen zuten artean, 2019an %64,9 hartzen zuten. Hortaz, zerbitzuen sektorearen pisuak gora egin du Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan bezalaxe. Jardura zehatzei dagokienez, 2019an %20,2 komertzioei etab. lotuta zegoen, %16,5 administrazio publikoari eta gainontzeko %28,2 bestelako zerbitzuei.

Industria eta energiari dagokienez, EAEn bezala Gipuzkoan ere beheranzko joera izan du azken urteetan. 1996an %33,4koa zen industria eta energiaren pisua Gipuzkoan eta 2019an %28,3koa. Hala ere, Gipuzkoan industria eta energiarekin lotutako jarduera sozioekonomikoak EAEn baino pisu handiagoa dauka. Azkenik, azken urteetan, eraikuntzak Gipuzkoan EAEn baino pisu handiagoa hartu duen arren, EAE-n bezala, beheranzko joera izan du; izan ere, 1996an %6,7 hartzen bazuen 2019an %6,2 hartzen zuen. Laburbilduz, EAE eta Gipuzkoako argazki orokorra antzekoa da, baina baditu diferentzia adierazgarri batzuk. Bereziki, Gipuzkoan industriak EAEn baino pisu handiagoa duen bitartean (%28,3 eta %23,9 hurrenez hurren), zerbitzuak dira pisu txikiagoa dutenak (%64,9 eta %69,4)

### 3. Taula. Sektoreen bilakaera Gipuzkoan (1996-2019)

	1996	2000	2005	2010	2015	2019
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,3	0,9	0,8	0,6	0,6	0,7
Industria eta energia	33,4	35,9	33,8	29,0	27,8	28,3
Eraikuntza	6,7	6,4	8,6	8,2	6,0	6,2
Zerbitzuak	58,7	56,9	56,9	62,3	65,5	64,9
-Komertzioak, ostalaritza eta garraioak	-	-	-	18,6	20,1	20,2
-Administrazio publikoa, osasungintza, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak	-	-	-	16,7	17,1	16,5
-Bestelako zerbitzuak	-	-	-	27,0	28,3	28,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


### Sektoreen bilakaera Gipuzkoan (1996-2019)



Gipuzkoako errentaren banaketaren datuei erreparaturaz, esan daiteke orokorrean EAEkoak baino pixka bat altuagoak direla. 2001ean urteko 8.675 euroko batez besteko lan errenta zegoen Gipuzkoan eta 2019an 14.029 eurokoa. Urte hauetan eman den errentaren igoera %61ekoa izan da, EAEn bezalaxe. Bestetik, generoaren arabera dagokionez, EAEn bezalaxe Gipuzkoan ere arrakala handia da, nahiz eta txikitzen ari den gutxinaka. 2019ko datuen arabera emakumezkoen batez besteko errenta gizonezkoena baino %37 txikiagoa da, bai Gipuzkoan eta baita EAEn ere. 2001ean aldiz, emakumezkoen errenta %59 txikiagoa zen gizonezkoenarekin alderatuta. Zifra absolutuetan, 2019an emakumezko batek urtean gizonezko batek baino 6.575 euro gutxiago irabazten zituen Gipuzkoan.

**4. Taula. Lanaren bidezko errentaren bilakaera Gipuzkoan (2001-2019)**

	2001	2006	2011	2016	2019
Gizonezkoak	12.417	15.320	16.079	15.859	17.425
Emakumezkoak	5.132	7.194	9.089	9.422	10.850
Guztira	8.675	11.151	12.485	12.541	14.029


**Lanaren bidezko errentaren bilakaera Gipuzkoan (2001-2019)****1.3. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA GOIERRIN (2001-2019)**

Goierriko kasuan 1996an lehenengo sektoreak EAEn eta Gipuzkoan baino garrantzi handixeago zuen arren (%2,4) 2019rako %0,6ra jaitsi zen, hau da, EAEn (%0,9) eta Gipuzkoan (%0,7) baino datu apalagoetara. Zerbitzuei dagokienez, EAEn eta Gipuzkoan baino nabarmen baxuagoa da Goierriko eskualdean duen pisu ekonomikoa (%38,7 Goierriin eta %64,9 Gipuzkoan). Gainera, EAEn eta Gipuzkoan zerbitzuen sektorearen pisuak gora egin duen bezala, Goierriin mantendu egin da %38aren bueltan. Aldiz, Goierriin industria eta energiak dute garrantzia handiena, eta honen pisuak gora egin du gainera azken urteetan (1996ko %51,9tik 2019ko %55,5era). Azkenik, eraikuntzak 1996an EAEn eta Gipuzkoan baino garrantzi handiagoa bazuen ere (%7,3) 2019an hiruretatik jarduera sozioekonomikoaren ehunekorik txikiena hartzen zuena zen (%5,2).

**5. Taula. Sektoreen bilakaera Goierriin (1996-2019)**

	1996	2000	2005	2010	2015	2019
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2,4	1,2	0,9	0,7	0,7	0,6
Industria eta energia	51,9	56,3	54,5	53,3	52,7	55,5
Eraikuntza	7,3	6,1	8,1	5,9	4,6	5,2
Zerbitzuak	38,4	36,4	36,5	40,2	42,1	38,7
-Komertzioak, ostalaritza eta garraioak	-	-	-	12,5	12,4	12,1
-Administrazio publikoa, osasungintza, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak	-	-	-	12,4	12,0	11,3
-Bestelako zerbitzuak	-	-	-	15,3	17,7	15,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

**Sektoreen bilakaera Goerrin (1996-2019)**




Lan errentaren datuek diotenaren arabera, Goerrin zertxobait altuagoak izan dira errentak EAEn eta Gipuzkoan baino. Bereziki 2011tik aurrera Goierri besteetan baino gehiago igo dira errentak, batezbesteko 14.855 eurora iritsi arte 2019an (gizonezkoen artean 19.263 eta emakumezkoen artean 10.451 euro). Hala ere, generoen arteko arrakala ere EAEn eta Gipuzkoan baino dexente handiagoa zen, bai 2001ean (8.761 euroko diferentzia, %67 gutxiago emakumezkoek) eta baita 2019an ere (8.812 euroko diferentzia, %45 gutxiago emakumezkoek).

**6. Taula. Lanaren bidezko errentaren bilakaera Goerrin (2001-2019)**

	2001	2006	2011	2016	2019
Gizonezkoak	13.108	16.064	17.358	18.033	19.263
Emakumezkoak	4.347	6.245	8.339	8.894	10.451
Guztira	8.745	11.206	12.893	13.478	14.855

**Lanaren bidezko errentaren bilakaera Goerrin (2001-2019)**



#### 1.4. SEKTOREEN BILAKAERA (1996-2019) ETA LANEKO ERRENTAREN BILAKAERA ATAUNEN (2001-2019)

Ataungo kasuan lehenengo sektoreak EAerekin, Gipuzkoarekin eta Goierriarekin alderatuta askoz garrantzi handiagoa izan du 1996tik (%27,5) 2019ra (%7,7). Hala ere, nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak izan duten bilakaera oso beharrezkoa izan da, ia 20 puntukoa hain zuzen ere, bereziki 1996 eta 2000 urteen artean. Bilakaera honen atzean dagoen azalpena aztertu beharko litzateke ondorio argiagotara iristeko.

Zerbitzuek, aldiz, igoera nabarmena izan dute, 1996an herriko aktibitate ekonomikoaren erdia izatetik (%48,0) 2019an bi herena izatera (%65,3). Bereziki igoera altua izan zuen zerbitzuen sektoreak 2005 eta 2015 bitartean %43tik %71ra pasa zenean, nahiz eta ondoren zertxobait behera egin zuen. Gaur egun Goierri baino askoz ere garrantzi handiagoa du zerbitzuen sektorean Ataungo udalerrian, EAE eta Gipuzkoaren antza handiagoa hartuz.


Bestetik, eraikuntzak 2005ean izan zuen pisurik handiena Ataunen, aktibitate ekonomikoaren %33,3 bilduz. Ondoren beherako bilakaera izan zuen 2019an %13,1 izatera iritsiz. Hala eta guztiz ere, eraikuntzaren sektorearen pisua bikoitza da Goierri, Gipuzkoa edo EAerekin alderatuz gero.

Azkenik, industria eta energiari erreparatuz, sektore honen pisua EAEn, Gipuzkoan eta Goierri baino nabarmen apalagoa izan da historikoki Ataunen. Gainera 1996tik (%20,9) 2019ra (%13,9) 8 puntuko jaitsiera jasan zuen.

**7. Taula. Sektoreen bilakaera Ataunen (1996-2019)**

	1996	2000	2005	2010	2015	2019
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	27,5	12,2	10,2	7,5	7,5	7,7
Industria eta energia	20,9	21,9	13,5	8,3	11,5	13,9
Eraikuntza	3,6	20,8	33,3	25,3	9,9	13,1
Zerbitzuak	48,0	45,1	43,0	59,0	71,0	65,3
-Komertzioak, ostalaritza eta garraioak	-	-	-	13,7	21,7	19,2
-Administrazio publikoa, osasungintza, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak	-	-	-	15,7	16,5	17,2
-Bestelako zerbitzuak	-	-	-	29,6	32,8	28,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

**Sektoreen bilakaera Ataunen (1996-2019)**




Ataungo lanaren bidezko errenta bikoiztu egin zen 2001 eta 2019 bitartean, 7.986 eurokoa izatetik 16.016 eurokoa izatera pasaz. EAE, Gipuzkoa eta Goierriekin alderatuta, 2001ean errenta baxuena zuen Ataunek eta 2019an altuena, hau da, besteek baino igoera indartsuagoa izan du Ataunen. Generoaren araberrako arrakalari dagokionez, handia den arren EAEko edota Gipuzkoako arrakalara gehiago hurbiltzen da Goierrikora baino. 2001ean Ataunen emakumeek gizonen baino %62 gutxiago irabazten zuten eta 2019an %43 gutxiago.

Orokorrean esan daiteke Gipuzkoa mailan Goierriko eskualdeak errenta altua duela, batez bestekotik gorakoa, eta are gehiago, Goierri mailan Ataunek errenta altua duela. Bereziki igoera hau 2006 eta 2011 bitartean eta 2016 eta 2019 bitartean ikus daiteke.

**8. Taula. Lanaren bidezko errentaren bilakaera Ataunen (2001-2019)**

	2001	2006	2011	2016	2019
Gizonezkoak	11.441	12.218	17.007	17.272	20.173
Emakumezkoak	4.322	5.670	9.583	10.121	11.582
Guztira	7.986	9.103	13.426	13.838	16.016

**Lanaren bidezko errentaren bilakaera Ataunen (2001-2019)**



## 2. ATAUNGO JARDUERA SOZIOEKONOMIKOA ETA AKTIBITATEAK

Ataungo udalerrian, gaur egun, 136 jarduera sozioekonomiko daude aktiboki lanean, Udalak emandako informazioaren arabera<sup>1</sup>.


136 jarduera horietatik gehienak 2005etik aurrera sortutakoak dira, 111 hain zuzen ere (%81,6). Hala, 1995ean baino lehen sortutako 9 jarduera sozioekonomiko daude erregistratuta. 1995 eta 1999 artean sortutakoak, aldiz, bost dira. 2000 eta 2004 urteen artean 11 jarduera sozioekonomiko sortu ziren Ataunen, gaur egun aktibo jarraitzen dutenak. 2005 eta 2009 urteen artean, berriz, 27 izan ziren; eta 2010 eta 2014 urteen artean 28. Gaur egun aktibo dauden jarduera kopuru altuena 2015 eta 2019 urteen artean sortutakoa izan da, 32 jarduera sozioekonomiko erregistratuta daudelarik Ataungo udalerrian. Azkenik, 2020 urtetik aurrera 24 izan dira sortutako jarduerak.

### 2.1. JARDUERA EKONOMIKOEN SORRERA URTEA

**9.Taula .Jarduera ekonomikoek sorrarera urtea**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
1995 urtea baino lehen	9	6,6
1995 eta 1999 urteen artean	5	3,7
2000 eta 2004 urteen artean	11	8,1
2005 eta 2009 urteen artean	27	19,9
2010 eta 2014 urteen artean	28	20,6
2015 eta 2019 urteen artean	32	23,5
2020 urtetik gaur egunera arte	24	17,6
Guztira	136	100,0

**Jarduera ekonomikoek sorrarera urtea**



<sup>1</sup> Jarduera Ekonomikoek gaineko Zerga, Ataungo Udalak emandako informazioa.


## 2.2. JARDUERA EKONOMIKOEN FORMA JURIDIKOA

Ataunen gaur egun dagoen aktibo dauden jarduera sozioekonomikoen ia bi heren autonomoa da (%62,5), beste ia laurdena SL formakoa da (%23,5) eta beste %6,6 elkartea. Gainerako %7,4k bestelako forma juridikoren bat du: SAL, ondasunen komunitatea, elkarte zibila edota erakunde erlijiosoak.

**10.Taula. Jarduera ekonomikoaren forma juridikoa**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Autonomoa	85	62,5
SL	32	23,5
Elkartea	9	6,6
SAL	4	2,9
Ondasun komunitatea	3	2,2
Elkarte Zibila	2	1,5
Erakunde erlijiosoak	1	0,7
Guztira	136	100,0

**Jarduera ekonomikoaren forma juridikoa**



2.3. JARDUERA EKONOMIKOEN AKTIBITATE KONKRETUA**11.Taula. Jarduera ekonomikoaren aktibitate konkretua**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Igeltseritza, iturgintza, zurgintza, elektrizitate eta eraikuntza lan txikiak	15	11,0
Industria lokalen alokairua	11	8,1
Merkantzien garraioa, errepidez	10	7,4
Elikagai edota produktuen txikizko salmenta	9	6,6
Kultur zerbitzuak	8	5,9
Etxebizitzaren alokairua eta turismoarekin lotutako eraikinen aktibitatea	8	5,9
Baso zerbitzuak eta arrantza eta akuikulturari lotutako zerbitzuak	7	5,1
Ostalaritza	6	4,4
Eraikinen sustapena	4	2,9
Irakaskuntza ezberdinen irakasle pertsonalgora	4	2,9
Ileapaindegiak	3	2,2
Zurgintza eta zerrailgintza	3	2,2
Bestelako produktuen handizkako salmenta (egurra, edari eta tabakoa, kontsumo gaiak...)	3	2,2
Pintore, eskultore, zeramikari, artisau eta antzeko artistak	2	1,5
Farmaziak, optikak	2	1,5
Elikagaien produkzioa (sagardoa, esnekiak...)	2	1,5
Mekanika, makineria konponketa...	2	1,5
Bestelako produktuen fabrikazioa (altzariak, metalezko produktuak)	2	1,5
Beste zerbitzu profesional batzuk (abokatu, informatikari, teknikari, taxista, dietista, kontsultore...)	21	15,4
Bestelako aktibitateak	14	10,3
Guztira	136	100,0

**Jarduera ekonomikoaren aktibitate konkretua**

## 2.4. JARDUERA EKONOMIKOEN KOKAPENA

Ataungo jarduera ekonomikoek kokapera dagokionez, herena baino gehiago (%36,0) Elbarrena auzoan kokatuta dago. Beste %17,6 San Gregorio auzoan eta %8,1 Zubikoeta industriagunean. Gainerako %29,4 Ataungo auzo ezberdinen artean banatzen dira eta, bukatzeko, aktibitateen %8,8 ez du zehazten non kokatuta dagoen.

**12.Taula. Jarduera ekonomikoek kokapena**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Elbarrena auzoa	49	36,0
San Gregorio auzoa	24	17,6
Zubikoeta Industriegunea	11	8,1
Ergoiena auzoa	7	5,1
Aia auzoa	6	4,4
Arrondoa auzoa	5	3,7
Suki aldea	5	3,7
Astigarraga auzoa	4	2,9
Urrutxu Mendi aldea	4	2,9
Aitzarte aldea	3	2,2
Otadi aldea	3	2,2
Arin auzoa	1	0,7
Murkondo auzoa	1	0,7
Ustatxo aldea	1	0,7
Zehaztu gabe	12	8,8
Guztira	136	100,0

**Jarduera ekonomikoek kokapena**

